

## **LAB sindikatuak EAEko hainbat herri eta hiritako udalbatzetan Haurreskolak Partzuergoko plazen eskaintza handitzeko mozioak erregistratu ditu**

**Aurreko ikasturteetarako matrikulazioarekin alderatuta, eskaeren kopurua %55 igo da, 1229 eskaera gehiago jaso zirelarik apirileko matrikulazioaldian.**

0-3 urte bitarteko hurrei hezkuntza zerbitzua eskaintzen dien Haurreskolak Partzuergo Publikoan 2023-2024 ikasturtetik doakotasuna ezartzea lortu du LABek, azkeneko urteetan eragileekin eta familiekin egindako lana eta hainbat greba eta mobilizazio egin ostean. Neurri honek hasieratik eragin zuzena izan du familien eskaera kopuruan. Izan ere, 2023-2024 ikasturterako matrikulazioak izugarriko gorakada izan zuen. Aurreko ikasturteetarako matrikulazioarekin alderatuta 1229 eskaera gehiago jaso ziren apirileko matrikulazioaldian, eskaeretan %55eko igoera dakarrelarik. Haurreskolak Partzuergoan matrikulazio epe berriak irekitzen dira hilabetero; beraz, ikasturtean zehar zentroen betetze maila igotzen doa.

Haurreskolak Partzuergo Publikoaren Zuzendaritza Batzordearen hitzetan, "lehen haurtzaroko hezkuntza eta zaintza kalitate handiko zerbitzu publikoa, unibertsala, eta doakoa izan dadin nahi da".

Gauzak horrela, zerbitzuaren unibertsaltasuna helburu eta jaiotzatik hurrek izan behar duten aukera berdintasunean hezkuntza jasotzeko eskubidea berma dadin, LAB Sindikatuak EAEko Haurreskolak Partzuergoko zentroen betetze mailaren jarraipen etengabea egin du ikasturte hasieratik. Detektatu zuen partzuergoko hainbat haurreskolatan urrirako ez zegoela plaza librerik, eta ondorioz, zentro horietan ezingo dutela familia gehiagok izena eman. Beste hainbat zentrotan, ordea, matrikulazioaren bilakaera ikusita familia ugari kanpoan gelditzeko arriskua dagoela detektatu du sindikatuak.

Egoera ikusirik eta hau iraultzeko asmoz, Haurreskolak Partzuergo Eusko Jaurlaritza eta udalen artean sortutako erakundea izanik, EAEko hainbat hiri eta herritako udalbatzek eskaintza handitzeko erabakia hartu dezaten mozioak aurkeztu ditu LAB sindikatuak, Haurreskolak Partzuergoko plazen eskaintza handitzea eskatuz. Hasteko, Bilbo, Santurtzi, Bastida, Getxo, Irun, Lasarte, Donostia eta Zallako udaletan erregistratu dituzte mozioak, gai hau mahai gainean jarri eta eskaintza handitzeko erabakia har dezaten. Eta hurrengo asteetan ere norabide berdinean jarraituko du LABek.

**Euskal Herrian, 2023ko azaroaren 17an**